

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Hezkuntza departamentuek bilera egin dute unibertsitate politikaz aritzeko

*Iruñean egin dute lan-saioa unibertsitate eta ikerketa arloetan daramaten ekimenen berri izateko eta aurrera begirako elkarlan-bideak aztertzeko*

Asteazkena, 2018.eko uztailak 18

Nafarroako eta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza departamentuetako ordezkariak bilera egin dute Iruñean unibertsitate eta ikerketa arloko politiken inguruan ekimenak elkartrukatzeko eta aurrera begira elkarlanerako aukerarik egon daitekeen aztertzeko. Bileran izan dira Jaurlaritzatik, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuorde Adolfo Morais, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendari Miren Artaraz eta Ikerketaren zuzendari Amaia Esquisabel. Nafarroako gobernutik, berriz, Unibertsitateen eta Hezkuntza baliabideen zuzendari orokor Nekane Oroz eta Unibertsitateen zerbitzu-zuzendari Raúl Azpilicueta izan dira.



Ezkerretik eskuinera, Raúl Azpilicueta, Nekane Oroz, Adolfo Morais, Miren Artaraz eta Amaia Esquisabel.

Bi erkidegoek duten berezitasunetako bat da hainbat campus dituen unibertsitate publiko bakarra dutela (NUP eta EHU); Euskadik Nafarroak baino biztanle gehiago artatzen baditu ere, bi erkidegoek dituzte unibertsitate pribatuak (Deustu eta Mondragón unibertsitatea, batetik, eta Nafarroako Unibertsitatea, bestetik); eta biek ala biek dituzte UNEDari atxikitako zentroak.

Ildo horretan, Nekane Orozko Unibertsitateen eta Hezkuntza baliabideen zuzendari orokorrak eta Unibertsitateen zerbitzu-zuzendari Raúl Azpilicuetak oso positiboki baloratu dute lehen eskutik ezagutu izana Eusko Jaurlaritzaren 2015-2018 Unibertsitate Planak jasotzen dituen ekimenak eta ekintzak, eta adierazi dute, " Euskadiko unibertsitate politika sistemagandik asko ikas daitekeela, etorkizunari begirako inbertsio- eta errendimendu-eredua arrakastatsua delako". Besteak beste, ikerketa politikaz, unibertsitate eskaintzaz, errendimendu adierazleez eta unibertsitateen finantzazio eredu ezberdinez aritu dira; izan ere,

Nafarroako Hezkuntza departamentuak ahalegin berezia egin du horietan guztietan, 2018-2020 bitarteko inbertsioa finkatuz.

Orain izandako bilera ez da daukaten lehenengoa; aurretik, apirilean, Gasteizen elkartu ziren bi gobernuetako ordezkariak, unibertsitate arloan izaten dituzten bileren harira, eta Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorraren eta Ikerketa Ekintzaren Ebaluaketarako Batzorde Nazionalaren bitartez erkidegoek estatuarekin dituzten bileren testuinguruan.